

## **Euskal armagintza Lehen Mundu Gerran (1914-1918)**

Igor Goñi Mendizabal  
Euskal Herriko Unibertsitatea

Espainia neutral izan zen Lehen Mundu Gerran eta, ondorioz, gerran ari ziren edota, bera bezala, neutralak ziren beste herrialde batzuetara zenbait produktu esportatuz bere ekonomia suspertu egin zen. Bake garaian atzeritik ekartzen ziren zenbait salgai ez zirenez iristen, espainiar barne merkatuan negozio berrien agerpenerako baldintza ezin hobeak sortu ziren ere. Haatik, sektore guztiak ez ziren horren zioronekoak izan, zenbait lehengaien kostuen hazkundeak irabazi marjinak kaltetu egin zituen eta (Tafunell eta Carreras, 2004; Rojo, 2009).

Hego Euskal Herrian, industria nahiko garatua izanik eta frantziar mugatik hurbil egonik, koiuntura horretatik onura atera zuten burdingintza, meatzaritza eta itsas-garraio sektoreek. Ekoizpen datuei erreparatuta, Lehen Mundu Gerra euskal armagintza industriaren historian garairik oparoena izan zen zalantzarik gabe. Harritzekoa bada ere, garai hori izan zen ere jarduera industrial honen gainbeherari eta eskualde horretako industriaren dibertsifikazioari hasiera eman ziona.

Ekoizpenaren hazkunde hau gerraren ondorio naturalizat har dezakegu, suzko-arnak gerran erabiltzen direlako eta hori bera zen industria honek ekoizten zuena. Baina ondorio hau ez da guztiz zehatza kontutan hartzen badugu euskal armaginek gerrarako arnak ez zituztela egiten eta, gerran zehar, euren ekoizpenaren ezaugarriak gutxi aldatu zirela. Hau kontutan izanik, salmenten igoera izugarri hori azaltzea zailagoa egiten zaigu. Artikulu honen helburua hazkunde hau eragin zuten faktoreak aztertzeaz gain, sektoreak eta erakunde publikoek gatazkak sortutako egoera berriari egokitzeko jarraitutako estrategiak nabarmentzea izango da.

### **1. Euskal armagintza gerra hasi aurretik**


Suzko armen ekoizpena Euskal Herrian XV. mendean hasi zen, espainiar Koroaren eskari militarri estuki lotuta. XVIII. mendearen amaierara arte eskualdeko tailerretako ekoizpena Soraluzeko errege Fabrikak banatu, koordinatu eta jasotzen zuen. Erakunde hau, lantegi bat baino, eskaerak kudeatzeko eta kalitatea bermatzeko gune administratiboa baino ez zen.

XIX. mende hasierako egoera soziopolitiko ezegonkorak eta zenbait liberalizazio neurrien aplikazioak (gremioen abolizioa adibidez) sistema tradizionala ahuldu zuten. Gainera, espainiar Koroak, frantziar mugaren arazo estrategikoak kontutan harturik, berriki irekitako Oviedoko Errege Fabrika bultzatzea erabaki zuen. Aldi berean, eskualdeko zenbait merkatarik industriaren liberalizazioaren lehen urratsak aprobetxatuz industria pribatu bat garatzen hasi ziren. Berrikuntza teknikoak errazago barneratuz, enpresa berri hauek eskari pribatua zein publikoa asetzeko gai izan ziren. Prozesu hau indartu egin zen arma militarren ekoizpenaren guztizko liberalizazioaren ondoren 1865. urtean, lantegi berri modernoak sortuz Eibarren edo Soraluzen, baina eskualde tradizionaletik kanpo ere bai, Azpeitiko edo Durangoko lantegiekin gertatu zen bezala.

Azken Karlistadak (1872-1876) industria militar pribatuaren garapen prozesu honi amaiera eman zion. Gerran zehar Karlistek arma-lantegiak eta tailerrak okupatu zituztenez, gerra amaitutakoan espainiar erregimen politiko berriko agintariek ez zuten arma militarren ekoizpena Euskal Herrian bultzatu nahi izan. Armaginen irtenbide bakarra merkatu zibilera zuzendutako armak egiten espezializatzea izan zen.

Mende bukaeran garraioen eta komunikazioen garapenaren ondorioz gertatzen ari zen nazioarteko merkatuen integrazioa, elektrizitatearen barnerapena, atzerriko berrikuntzak kopiatzea errazten zuen espainiar patente lege leuna edota Espainia armen proba-banku ofizialik ez egotea hurrengo hamarkadetako hazkundearen oinarri nagusiak izango dira (Catalán, 1990; Goñi, 2007). 1. irudian ikus dezakegun bezala, epe laburrean, Euskal Herriko armen ekoizpena nabarmen handitu zen, Europako beste lehiakide batzuen maila gaindituz.

1. irudia. Europako ekoizpen-gune nagusien suzko armen ekoizpen osoa, 1896-1905 (unitateak)



Iturria: Armurerie Liegeoise 1906/01/01, 882. orr.

Euskal armagintzaren ezaugarri nagusiak lehen Mundu Gerraren bezperan hurrengoak ziren:

- Enpresa gehienak Eibarren kokatuta zeuden (11.000 biztanle). Inguruko beste herrietan, Ermuan, Elgoibarren edo Soraluze kasu, armagintzan aritzen ziren zenbait lantegi ere bazeuden. Eskualdetik kanpo jatorriz eibartar baina 1913an Gernika-Lumon kokatutako *J. Esperanza y P. Unceta* enpresa ere bazegoen.
- Ekoizpenaren gehiengoa, Europako beste armagintza guneetan ez bezala, arma laburrak ziren: pistola erdi-automatikoak eta errebolberrak. Gehienak atzerriko eredu kalitate baxuagoko imitazioak ziren (Goñi, 2018). 1913. urtean Eibarren 510.625 errebolber eta 88.625 pistola ekoiztu ziren, Liejan aldiz, 412.832 eta 206.182 hurrenez hurren (*L'Armurerie Liégeoise*, 1914/02/01, 1884-1886 orr.).

- Sektorearen antolamendua ekonomian aspaldi ezaguna den industria barrutiaren ereduari egokitzen zitzaion (Becattini, 1979; Goñi, 2010). 1914an eginiko inkesta baten arabera, urte horretan Eibarren 24 enpresa zeuden errebolberren ekoizpenean espezializatuta, 16 pistola erdi-automatikoetan, 6-k mota guztietako armak egiten zituzten eta 12 eskopetagintzan ari ziren; 2.104 langile guztira. Horietaz gain, bederatzi galdategi zeuden herrian, 162 langileei lana emanez bertan. Bost lantegik soilik zeuzkaten ehun langile baino gehiago, handienak *Orbea y Cía.* (404) eta *Garate, Anitua y Cía.* (200) zirelarik, barrutiko armagintza enpresarik zaharrenak (1850 hamarkadakoak). Eskopeten ekoizpenak oraindik artisau izaera handia zeukan eta trebetasun handiagoko langileak behar ziren bertan, tailerren tamaina txikiagoa izanik horren ondorioz.
- Urte horietan zehar barrutiarentzat berebizikoak izan ziren bi ekimen burutu ziren. Armagintza eskola, 1913an irekia, eta Armen Proba Banku Ofiziala, 1916ko lege baten bitartez onartua. Azken honek derrigorrezkoa egiten zuen Espainian salduko ziren armak gutxieneko kalitatea bermatuko zuten proba batzuk pasatzera, baina gerran zehar egondako munizioen eskasia dela eta ez zen 1923. urtera arte martxan jarri.
- Salmenten portzentai altu bat, %80-90 ingurukoa, atzerriko merkatuetara esportatu egiten zen. Hau garai hartako lehiakortasunik gabeko espainiar industrian salbuespen bat zen.
- Gobernuak euskal armagintzari eginiko eresketa oso mugatuak izan ziren. XIX. mendearen amaieran *Orbea y Cía.*-ri erositako errebolberrak eta 1913an *J. Esperanza y P. Unceta*-k espainiar armadan arautu berri zegoen *Campo-Giro* pistolaren hornidurarako sinaturiko aurreneko kontratuak. Era honetako eresketak, milako gutxi batzuk izanik, enpresa horien gain eragin positiboak izan arren ondorio gutxiak izan ziren barruti osorako. Orokorrean, euskal armaginak gobernuagatik abandonatuak sentitzen ziren.


## 2. Euskal armen salmenta Lehen Mundu Gerran

Orain arte genuen informazioaren arabera, urteroko datuetan oinarrituta, Lehen Mundu Gerran zehar inoiz baino arma gehiago saldu zituen euskal armagintza sektoreak. Eskaria bereziki handia izan zen arma laburren kasuan eta gerraren erdialdeko urteetan: 1916an, 682.502 eta 1917an 708.550 unitate saldu ziren hurrenez hurren. Arma luzeen kasuan, ordea, joera bestelakoa izan zen, Euskal Herrian ohikoak ziren eskopetek ez baitzuten inolako balio militarrik. Gerran zehar, lehengaien eskasia eta prezio altuak direla eta, eskopeten salmentak gutxitu egin ziren. Gerra amaitzerakoan joera guztiz aldatu zen, pistola eta errebolberren salmentak beheratu eta eskopetenak handitu.

Zorionez iturri berri batek garai honetako bilakaeran sakontzeko aukera eman digu. Garaiko zenbait egunkarik, hilabetero, Eibarren saldutako armen kopuruen berri ematen zuten eta hurrengo grafikoan ikus dezakegunez, gerra hasierarekin (1914ko abuztua) salmentak izugarri beheratu ziren, batez ere errebolberren kasuan. Berreskurapenaren lehen zantzuak 1915. urteko erdialdean ikus ditzakegu, salmenten maila gorena 1916 eta 1917 urteetan lortuz. 1917ko ekainetik aurrera eta gerra amaitu arte, salmenten joera

beherakorra izan zen. Grafikoak argi erakusten duenez salmenten hazkundera arma laburren eskariaren hazkunderari dagokio batez ere, eta bereziki pistola erdi-automatikoanari. Datuek ere konfirmatzen dute gerran zehar Eibarren ez zela inolako errifle militarrik egin, arma luze guztiak ehizarako eskopetak baitziren.

3. Irudia. Eibarren eginiko arma salmentak arma motaren arabera (unitateak, abendua 1912-abendua 1919)



Iturria: *La Voz de Guipuzcoa* eta *El Pueblo Vasco*

Eibarko udalak eginiko informazio bilketa baten ondorio dira hurrengo bi taulak. Lehenengoan ekoizle nagusiak zeintzuk izan ziren ikus dezakegu. Errebolberren kasuan ekoizpenaren kontzentrazio maila handia dago, salmenta gehienak enpresa gutxi batzuk egin zituztelako, *La Industrial Orbea*<sup>1</sup>, *Gárate, Anitua y Cía.* eta *Trocaola y Aranzabal* izanik gehien nabarmendu zirenak. Pistolen kasuan aldiz, ekoizleak ugariagoak dira.

<sup>1</sup> 1917-1919 epean *Orbea y Cía.*-k izena aldatu zuen, *La Industrial Orbea* erabiliz.

1. taula. Eibarko arma-esportatzaile nagusiak Lehen Mundu Gerran

	Guztira	Pistolak		Errebolberrak	
	Q	Q	%	Q	%
Industrial Orbea	260.164	16.500	2,0	243.664	32,3
Gárate, Anítua y Cía	169.000	44.000	5,4	125.000	16,6
Hijos de A. Echeverría	154.000	154.000	18,9	-	0,0
Trocaola, Aranzabal y Cía	150.000	-	0,0	150.000	19,9
F. Arizmendi y Goenaga	136.450	90.000	11,0	46.450	6,2
Antonio Errasti	108.000	-	0,0	108.000	14,3
7 ekoizle 50.000-75.000 unitateko produkzioarekin	421.475	377.975	46,3	43.500 <sup>a</sup>	5,8
8 ekoizle 10.000-40.000 unitateko produkzioarekin	152.500	117.500	14,4	35.000 <sup>b</sup>	4,6
4 ekoizle 10.000 unitate baino gutxiagoko ekoizpenarekin	20.000	16.900	2,1	3.100	0,4
	1.571.589	816.875	100	754.714	100

Notak:

(a) Kopuru hau ekoizle bakar bati dagokio: Arizmendi y Zulaica

(b) Kopuru hau ekoizle bakar bati dagokio: Salvador Arostegui

Iturria: EUA Sign. B51.1.

2. taulak euskal armen erosle izan ziren herrialdeen berri ematen digu. Ikusten denez, aliatuak izan ziren bezero bakarrak, eta horien artean Frantzia izan zen nabarmendu zena. Horretaz gain, taula honek erakusten digu ere Frantzia pistola zalegoa zela eta Erresuma Batua, Italia edota Errumania, aldiz, errebolber zalegoak. Datu hauek ez dira guztiz zehatzak ez baitakigu *Garate, Anitua y Compañía* enpresaren lurraldekako banaketa nolakoa izan zen. Bestelako iturriek Erresuma Batura bidalketa garrantzitsuak egin zituela esaten digute, beraz, litekeena da herrialde honen garrantzia gutxietsia egotea (Gangarosa, 2001: 45). Taula honen adierazgarritasuna gutxituko lukeen beste faktore bat zenbait euskal enpresa Eibartik kanpo kokatua egotea izango litzateke, zeren Elgoibarko *Gabilondo y Urresti* eta Gernika-Lumoko *J. Esperanza y P. Unceta* eta *S.A. Alkartasuna* enpresek pistolen salmenta garrantzitsuak egin baitzituzten Frantziara eta Italiara.

2. taula. Eibarko armagintzak Lehen Mundu Gerran eginiko salmenten herrialdekako banaketa

Herrialdea	Errebolberrak (zenbait kalibre)		Pistola automatikoak k. 7,65mm		Guztira	
	Q	%	Q	%	Q	%
<b>Frantzia</b>	418.500	55,4 %	798.630	97,8 %	1.217.130	77,4 %
<b>Italia</b>	104.730	13,9 %	18.245	2,2 %	122.975	7,8 %
<b>Erresuma Batua</b>	10.734	1,4 %	-	-	10.734	0,7 %
<b>Errumania</b>	95.750	12,7 %	-	-	95.750	6,1 %
<b>[G.A.C. Errebolberrak]</b>	125.000	16,6 %	-	-	125.000	8,0 %
<b>Total</b>	754.714	100 %	816.875	100 %	1.571.589	100 %

Iturria: EUA, Sign. B 53

### 3. Krisia, lubakien gerra eta ekoizpenaren hazkundera

Espainiako gobernuak hasiera batetik neutraltasuna aldarrikatu arren, gerra hasierak sortutako ezjakintasunak eta nazioarteko merkataritzari ezarritako oztupoek ohiko jarduera ekonomikoari kalte egin zioten. Finantza sektorea izan zen eragin negatibo hau jasaten lehenengoa: akzioen prezioak beherakada handia izan zuen, diru-bidalketak gelditu egin ziren eta kreditua izugarri uzkuritu zen. Atzerriko interesekin loturiko sektoreek arazoak pairatu zituzten lehengaiak ez zirelako iristen edo aurretik egindako esportazioen ordainketak ez zirelako burutzen (Roldán, García Delgado eta Muñoz, 1973: 45-51; Rojo, 2009: 392-393). Euskal armagintzak, beraz, kolpe handia jaso zuen, armen merkataritza eten egin zelako eta atzerriko bezeroek ezin zituztelako fakturak ordaindu. Egoera horren aurrean lantegiek beren jarduera asko murriztu zuten eta langileak kaleratzen hasi ziren. Armaginen kopuru osoa 2119tik 1550era jaitsi zen, baina langabeziaren eragina askoz handiagoa izan zen arma laburren kasuan (lanpostuen %28a galdu zen) eskopetenean baino (%12), lehenengoa atzerriarekiko menpekotasun handiagokoa baitzen (EUA, Sign, B 51.1).

Egun horietan Eibarko udalak bi kezka nagusi zituen: alde batetik armaginen familien ongizatea bermatzea, bestetik, egoera egonkortzean herriaren etorkizunarentzat ezinbestekoa izango zen lan indarraren emigrazioa ekiditea. Ekimen ugari sortu ziren horretarako, esaterako, errepide bat eraiki zen Aginagako auzora kaleratutako armaginei lana emateko eta “sukalde ekonomikoak” antolatu ziren beharra zuten familiei otordu merkeak eskaintzeko. Horrekin batera, herriko musika banda, “La Marcial”, udalaren babespean jarri zuen, kide gehienak armaginak baitziren eta taldea desagertzeko arriskua zegoen. Enpresariak ere gutxieneko aktibitatea bermatzeko proiektuen bila aritu ziren. Horrela, Madrilera bidalitako zinegotzi eta patroien batzorde batek Guardia Zibilarentzat 16.000 errebolber egiteko kontratua lortu zuen. Bestetik, zenbait banakakok eta taldek egoera arintzeko ekintzak proposatu zituzten. Adibidez, Ignacio Zuloaga eibartar margolariak bere lanetako bat eman zuen dirua biltzeko zozketa bat egiteko. Bilbon ere, eibartar pilotari batzuek sukalde ekonomikoen aldeko partida bat antolatu zuten.

Eibarko eta Gipuzkoako zenbait pertsonaia eta politikari ezagun krisiari aurre egiteko ekoizleen arteko elkarlaguntza sustatzen saiatu ziren. Armagintza-enpresen elkarte bat sortuko balitz industriaren finantza-ahalmena handituko zen, epe laburrean arazorik handiena zen kreditu eskasia gaindituz. Erakunde honek ere salmenta gune bateratu bezala funtziona zezakeen, ekoizle guztientzat prezio komunak ezarriz elkarren arteko lehia ekidinez. Bide hartatik industriaren berreskurapena errazago izango zen merkatuak normalizatu eta gero. Jakin badakigu 1915eko maiatzaren 7an *Union de Fabricantes de Pistolas Automáticas de Eibar* izeneko elkarte baten estatutuak onartuak izan zirela, baina erakunde honen inguruko bestelako berririk ez dugu aurkitu (EUA, Salamankako Artxiboko Funtsa).

### **3.1. Arma laburren eskari militarra Lehen Mundu Gerran**

Lubakietako gerra mendebaldeko frontean sufrikario itzela izan zen bertan borrokan aritu ziren soldaduentzat, gerraren arriskuei eta erronkei aurre egiteaz gain, gaixotasunak erraz sortu eta hedatzen ziren arratoiz, zorriz eta lokatzez beteriko lekuan bizi behar izan zutelako. Lehen Mundu Gerraren iruditeriak lubakien kontrako eraso handiak erakusten badizkigu ere, errealitatean horrelakoak ez ziren horren ohikoak. Soldaduen eguneroko bizitzan lubakiak behar bezala mantentzeko lanak eta etsaien lerroen zaintzak ziren nagusi. Noizbehinka inorena ez zen lurrean patruilak egin behar zituzten arerioen defentsen berri izateko edo informazio zehatzagoaren bila arerioak eurak harrapatzeko eraso txikietan parte hartu behar zuten (Bull, 2010). Kasu hauetan, etsaiekin topo eginez gero, borroka oso hurbilekoa zen eta halakoetan errifle astun eta luzeak ez ziren oso erabilgarriak. Gerra egiteko modu horretarako erosoago suertatzen ziren granadak, makilak edota palak ere bai, eta armadako zenbait agintariei soldadu arruntek arma laburrak erabiltzea otu zitzaion (Strachan, 2004: 171).

Gatazka aurreko garaian, ordea, arma laburrak, eta pistola erdi-automatikoak bereziki, balio gutxiko armatzat zituzten militarrek zehaztasun eta potentzia gutxiak zirelako distantzia luzeetan. Horregatik ofizialentzako eta zenbait unitate berezien soldaduentzako baino ez zituzten egoki ikusten, hots, defentsa pertsonalarentzat soilik zeritzaten erabilgarri.

Baina mendebaldeko fronteko lubaki estuetan, pistola edo errebolber bat eskuetan edukitzeak borrokatzeko eta erasoei azkar erantzuteko gaitasuna nabarmen handitzen zuen. Laster, bai Frantziak zein Erresuma Batuak beren soldaduei horrelako armak ematen hasi ziren eta beraiei buruzko erreferentziak ohikoak dira soldaduen eta ofizialen gerraosteko literatura lan autobiografikoetan. Lehen Mundu Gerrak ere soldadu mota berrien agerpena ekarri zuen, beren jardueren ezaugarriengatik soinean arma arinak eramatera behartuta zeudenak: hegazkinetako pilotuak, tankeetako tripulazioak edota metrailadore astunen erabiltzaile taldeak. Bitxia bada ere, britaniarrek eta frantziarrek ez zioten irizpide berdinari jarraitu horrelako armak erosterako orduan. Lehenengoek errebolberak nahiago zituzten gogorrak, kalibre handiagokoak eta erabiltzen errazagoak zirelako; bigarrenak, aldiz, pistolaren abantailak lehenetsi zituzten: tamaina txikiagoa, tiro kopuru handiagoa eta birkargatzeko erraztasuna.

Pistolen eta errebolberren erabileraren hedapenari armaden tamaina izugarria gehitzen badiogu, arma laburren behar izugarria da lortzen dugun emaitza. Gerran ari ziren herrialdeak eskari izugarri horri aurre egin ezinik atzerriko hornitzaileengana jo

behar izan zuten. Euskal ekoizleak, beren kokapen geografikoagatik eta gaitasun teknikoagatik, egoera ezin hobean zeuden behar horiek asetzeko eta krisiaren ostean ekoizpena berriro martxan jartzeko.

### 3.2. Hasierako arazoak eta aliatuei eginiko salmentak

1907ko Hagako Konbentzioak herrialde neutralek gerran ari zirenei armak esportatzeko eskubidea babesten zuen. Baina gerrak eztanda egin zuen momentutik aurrera, borrokan ari ziren herrialdeetako gobernuek gerrako kontrabandotzat hartzen zituzten produktuen zerrenda luzeak argitaratzen hasi ziren. Herrialde neutral batetik etsaiarengana zihoan edozein bidalketa harrapatua izanez gero, gelditua izango zen. Noski, mota guztietako armak zerrenda hauetan hasiera-hasieratik agertu ziren (*Gaceta de Madrid*, 1914/08/19).

Espaniar gobernuak, nazioarteko testuinguru diplomatiko korapilatsu hartan erabaki okerren bat hartzearen beldur, inplizituki armen esportazioa oztopatu egin zuen. Hau ikusirik, euskal armaginak hasiera baten salmentak herrialde neutraletara egiten hasi ziren. Italia eta Suitza izan ziren postaz egindako armen bidalketa horien helburu. Kopuru txikiak izan arren, aukera ematen zuten euskal armaginak lanean aritzeko, baina aliatuek, arma horiek Alemanian bukatuko zutenaren susmo zuzena zuten, eta kontrabandotzat hartzen zituzten. 1915eko apirilean Italia gerran sartu eta gero, negozio hori guztiz ezinezko bihurtu zen, baina bezero potentzial berri bat agertu zen horren truke.

1915. urteko erdialdean euskal armagintza industria berrantolaturik zegoen berriro aliatuen eskaerek bultzatuta. Zenbait faktorek eragin zuten berreskurapen hau. Alde batetik mugarekiko hurbiltasunak garraioari segurtasuna ematen zion, erraza baitzen armak trenaz Frantziara edo Italiara bidaltzea. Bestetik, zenbait balizko lehiakide bazterturik geratu ziren, estatubatuarrak itsas garraioaren prezio igoeragatik eta, Lieja, europar ekoizpen gune nagusia, alemaniarrek okupatu zutelako gerraren hasierako asteetan. Hirugarren faktorea euskal armaginek eskaini zezaketen produktua bera zen, agian kalitatez ez horren ona baina prezioz merkea. Armak, behin bidalita, loteka probatu egiten ziren eta akastunak %5 baino gehiago baziren lote osoa itzultzen zen. Frantziar erosketen kasuan armak Baionako armategian probatzen ziren eta britaniarren kasuan Enfield-ekoan (Gangarosa, 2001: 39-40 orr.).

Euskal armaginek gerran zehar gehien saldu zuten produktua, zalantza gabe, 7,65 mm-ko pistola erdi-automatikoak izan zen. Nahiz eta enpresa ezberdinek egin, bezeroaren eskakizunetara egokitu behar izan zirenez, arma eredu berezi bati buruz ari garela esan genezake, nazioarteko literatura espezializatuak *Eibar* edo *Ruby* pistola bezala izendatzen duena. Pistola hau Belgikan *Fabrique Nationale d'armes de Guerre* eta AEBn *Colt Firearms Co.* enpresek egiten zituen Browning sistemako armen imitazio sinplifikatu eta merke bat baino ez zen (Hogg eta Weeks, 1978: 13).

Eibarko *Gabilondos y Urresti* enpresa izan zen aurreneko kontratuak sinatu zituen frantziar gobernuarekin 1915ean. Berak bidalitako *Ruby* markako modeloak zeukan berezitasun bakarra garai hartan Eibarren egiten ziren pistolekin konparatuta, 9 tiroko kargadorea izatea zen, bake garaietan ohikoena 6 edo 7 tirokoa zenean. Eginiko probekin pozik, frantziarrek 10.000 unitate eskatu zituzten hilabeteko baina laster kopurua 30.000ra igo zuten. Egile batzuen ustez hileko 50.000 eskatzera iritsi ziren frantziarrak.



Arrakasta handiegia izan zen tailer txiki bat baino ez zeukan konpainia batentzat. Enkarguaren ondorioz hazten hasi zen eta, Eibarko sindikatuekin zenbait liskar izan eta gero, jabeek Elgoibarrera lekuz aldatzea erabaki zuten. Lortutako kontratuak garai hartako edozein euskal enpresaren ekoizpen ahalmena soberan gainditzen zuen beraz *Gabilondos y Urrestiren* aukera bakarra produkzioaren zati bat beste enpresa batzuei azpikontratatzea izan zen (zortzi enpresek lagundu zioten horretan).

Frantziar eskarien etengabeko hazkundeari Italia gerran sartzea gehitu zitzaionean, negozio aukerak bestelako euskal enpresengana hedatu ziren. Eskaera berri hauek *Ruby* pistola egiteko zehaztuta zeuden betekizun teknikoetara egokitu behar ziren. Horrela, enpresa guztiak beltzez ilundutako 7,65 mm –ko bederatzi tiroko pistolak egin zituzten, egurrezko kirten-azalekin eta ezkerraldean uztai txiki bat zutelarik<sup>2</sup>.

Nahiz eta pistola erdi-automatikoak gustukoagoak izan, zalantzarik gabe errebolberren kasuan ere Frantzia euskal armaginen bezerorik onena izan zen. Mota honetako armen 500.000 unitate saldu zitzaizkion herri honi. Italia ere, kasu honetan, bezero garrantzitsua izan zen (95.000 unitate), bere atzetik, kopuru askoz txikiagoekin, Errumania eta Grezia kokatuz (Gangarosa, 2001:42).

Britaniar armada, potentzialki, bezero garrantzitsua izan zitekeen ere, baina kontratuak ez ziren horren handiak izan. 1915eko azaroan *Gárate, Anitua y Cía.* eta *Trocaola y Aranzabal* enprekin hornikuntza kontratu bat sinatu zuten eta, frantziarrek bezala, britaniarrek zenbait baldintza tekniko ezarri zituzten errebolberren mekanismoei eta erabili beharreko munizioari zegokienez. Errebolberrek *Pistol OP with 5 inch barrel No. 2 Mk 1* izena jaso zuten eta 1917rako jadanik 45,000 unitate bidalita zeuden. Haatik, errebolber modelo berri baten garapenak, *Webley Mark VI*, euskal errebolberren erosketak bertan behera utzi zituen (Gangarosa, 2001:36).

### **3.3. Gerra osteko krisia aurreikusten: Eskopeten lantegiaren proiektua eta industriaren dibertsifikazioa**

1918ko hasieran, fronte ezberdinetan gertatzen ari zena ikusirik, zenbait pertsona gatazkaren bukaera hurbiltzen ari zela pentsatzen hasiak ziren jadanik. Beraien iritziz ere, bakeak gerran ziharduten herrialdeen enkarguen desagerpena ekarri behar zuen eta, ondorioz, krisi larria armagintzarentzat. Julian Echeverría, Armagintza Eskolako zuzendaria, argia izan zen urte horretako ikasturte hasierako hitzaldian. Euskal armagintzaren ahulgunerik handiena, bere iritziz, gehiegizko espezializazioa zen, arma laburren eskariak mundu osoko gobernuen segurtasun arauen aldatetekiko menpekotasun handiegia zuelako. Irtenbideetako bat teknikoki armagintzatik hurbil zeuden metalgintza jarduera berriak garatzea zen. Eskolako zuzendariaren aburuz, industria berri horietako bat eskopeten ekoizpena izan zitekeen. Arma hauek ehizarako diseinatuta zeuden, eta ondorioz, beren merkatua arma laburrenarekiko oso ezberdina zen, azken hauek defentsa pertsonalarekin edota erakunde militarrekin lotuta baitzeuden. Gainera, eskopeten merkatuari eragiten zioten faktoreak oso ezberdinak ziren, gerrak berak erakusten ari zen bezala. Echeverriaren iritzia beste europar armagintza guneeetan egindakoan oinarritzen zen, horietan arma luzeek ekoizpenean zuten proportzioa Eibarren baino askoz handiagoa

---

<sup>2</sup> Lehen Mundu Gerran saldutako pistola guztiak ez ziren Eibar ereduari egokitzen. Frantziak *Bonifacio Echeverria*-ren *Star* pistolak ere erosi zituen (Antaris, 2001: 106-109).

baitzen eta hori izan behar zen Eibarrek jarraitu beharreko bidea (Armagintza Eskolako Memoria, 1917, EUA).

Handik denbora gutxira zuzendariaren ideia lantegi berri bat eraikitzeko proiektu formal baten bilakatu zen. Plan osoa eskolako irakasleek burutu zuten, Julian Echeverriak berak koordinatuta<sup>3</sup>. Eibarko udala proiektuaren alde agertu zen eta, bere gauzatzean aurrera egiteko, batzorde berezia osatu zen<sup>4</sup>. Lantegi berria finantzatzeko Bilboko inbertitzaile talde bat milioi bat pezeta ematekoa zen, 800.000 pezeta Eibarren bilduko ziren eta beharrezkoak ziren beste 500.000-800.000 pezetak bonuen salmenta baten bitartez lortuko ziren. Azken honetarako banku batekin elkarrizketetan ari ziren<sup>5</sup>. Tamalez beharrezkoak ziren 800.000 pezetan ehuneko 19,5a baino ez zen lortu Eibarren. Porrotaren atzean hiriko enpresa nagusien babes falta egongo litzateke enpresa handienek ez baitzuten inolako akziorik erosi. Litekeena da ekoizle horietako zenbait gerraosteko krisia gainditzeko bestelako proiektuetan inplikaturik egotea, edota enpresari horietako batzuek proiektua beraien negozio propioentzat mehatxu moduan antzematea. Eibarko inbertitzaileen konpromiso faltak proiektuaren etorkizuna kolokan jarri zuen.

Azken aukera bezala, udala Gipuzkoako aurrezki-kutxaren babesari lortzen saiatu zen, baina ez zuen lortu, erakunde horren arabera Eibarko jende aberatsak dirua bankuan gordeta zuelako eta, beraien ustez ere, etorkizuna ez zegoelako eskopetetan, garatu behar ziren bestelako industria batzuetan baizik<sup>6</sup>. Azken bide hau izan zen azkenean ekoizle gehienek jarraituko zutena hurrengo bi hamarkadetan eta eskopeten lantegiaren proiektua bertan behera geratu zen.

Gerra ostean kanpo merkatuak ez zeuden egoerarik onenean, borrokan aritutako herrialdeen arma biltegiak gainezka egonik, arma laburrak nonahi aurki zitezkeelako. Euskal armaginen itxaropena barne merkatuan oinarritzea izan zen, baina 1920an, Espainian zegoen gatazka sozial larriaren eta erailketen segida luzearen ondorioz, gobernuak suzko armen merkataritza eta erabilpena estutu egin zuen. Araudi berriak arma laburren barne merkatua izugarri uzkuratu zuen eta horren aurkako mobilizazio handiak egin arren, gobernuak ez zuen bere posizioa aldatu.

Gauzak horrela, enpresak ekoizpenaren dibertsifikazio proiektuak martxan jartzen hasi ziren, hala nola josteko makinak (*Sociedad Cooperativa ALFA*), bizikletak (*Orbea y Cía.*, *Gárate*, *Anitua y Cía.* eta *Beistegui Hermanos*), bizar-orriak (*Artamendi e Hijos*), bulegoko tresnak (*Olave*, *Solozabal y Cía.*), kafe makinak (*Solaun*, *Rubio y Ormaechea*) eta bestelako metalezko produktuak, armak guztiz alboratu gabe. Ekimen berri hauek gerran zehar lortutako trebezetan eta kapitaletan oinarritzeaz gain, garai hartako espainiar gobernuaren industria berrien aldeko legediaren laguntza izan zuten. Enpresetako batzuk, *Bonifacio Echeverría* eta *Esperanza y Unceta*, adibidez, gerran garatutako esperientzian oinarrituta, kalitate handiko pistolak egiten aritu ziren, Espainiako eta atzerriko zenbait indar armatuen hornitzaile bilakatu. Momentu horretara arte gutxi landutako Balkanak edo Txina bezalako merkatu berrietara iristen saiatu ziren ere, epe laburrean arrakasta entzutetsuak lortuz (Goñi, 2008). Eskopeten ekoizpena,

---

<sup>3</sup> *Memoria de un proyecto de fabricación de Escopetas*, EUA, Sign. B 53.

<sup>4</sup> Eibarko Udalaren Plenoaren akta, 1918/07/10, EUA, Sign. A 11 35

<sup>5</sup> Eibarko Udalaren Plenoaren akta, 1918/08/02, EUA, Sign. A 11 35

<sup>6</sup> Eibarko Udalaren Plenoaren akta, 1919/02/07, EUA, Sign. A 11 36.

merkatu zabalagoa zuen produktua izanik, hazten jarraitu zuen, mailarik altuenak 1950eko eta 1960ko hamarkadetan lortuz.

#### 4. Ondorioak

Lehen Mundu Gerra euskal armagintzaren historiaren mugarrria izan zen. Gatazkan zehar ekoizpenak inoiz lortutako mailarik altuenetara iritsi zen, baina jarduera industrial honen gainbeheraren hasiera ere izan zen.

Pentsa genezakeenarekin bat egin ez arren, gerraren hasierak ez zion armagintzari bat-bateko mesederik egin. Hasierako hilabeteetan nazioarteko merkataritzan eta finantza merkatuetan sortutako zailtasunak erronka handia izan ziren Eibarko barruti osoarentzat. Desenpleguaren hazkundeari enpresetatik zein erakunde publikoetatik sortutako ekimenekin aurre egin behar izan zitzaion. Ahalegin horiek funtsezkoak izan ziren lan indarra herrian geratu zedin, etortzekoa zen hazkundearen oinarriak ziurtatuz. Gerran zehar izandako salmenten arrakasta mendebaldeko fronteko lubaki-gerraren ezaugarri berezien ondorio zuzena izan zen. Hurbileko borrokaren garrantziaren igoerak arma laburren eskariari bultzada eman zion.

Eibar eta eskualde armagin osoa egoera ezin hobean zegoen aliatuen beharrei erantzuteko, bereziki frantziar eta italiar armadenei. Eibarren mugarekiko hurbiltasuna, alemaniarrek Lieja okupatu izana eta trenbide lotura zuzena edukitzea arma laburren esportazioen hazkunde izugarria azaltzen duten faktoreak dira. Hala ere, gure ustez, arrakasta honen arrazoi nagusiak armagintza industriaren egituraren ezaugarriak izan ziren, teoria ekonomikoak industria barrutiek lotzen dituen hain zuzen: malgutasuna eta eskariaren aldaketei egokitzeko ahalmen handia.

Euskal armagintza garrantzitsua izan zen aliatuen gerra ahaleginean baina hau ez zen euskal ekoizleen hautu bat izan, egoerak behartutakoa baizik. Ikusi dugun bezala, Italiaren eta Suitzaren bitartez bideak irekiak egon ziren bitartean Alemaniarekin harremanak egon ziren eta zenbait arma bidali egin zirela jakin badakigu.

Gerraosteko krisiak eta Espainian lege zorrotzagoak onartu izanak eragin handia izan zuten Eibarko armagintza industria barrutian. Atzerriko merkatuetako arazoek eta arma laburren gain gobernua zuen iritzia aldatzeko gaitasun ezak enpresak kontsumo egonkorragoko eta orokorragoko produktuak ekoizteko bidera eramane zituen. Gobernuaren nolabaiteko laguntzarekin metamorfosi bat burutu zen eta, horren ondorioz, Eibarko barrutia armetan ez ezik era askotako metalezko merkatuetan, etxeko tresna elektrikoetan eta ibilgailuetan espezializatutakoa izango zen hemendik aurrera.

#### Bibliografia

- Antaris, Leonardo M. (1988): *Astra Automatic Pistols*, Firac Publishing Co., Sterling, CO (USA).
- Antaris, Leonardo M. (2001): *Star Firearms*, Firac Publishing Co., Davenport, IA (USA).
- Antaris, Leonardo M. (2009): *Astra Firearms*, Firac Publishing Co., Davenport, IA (USA).

- Becattini, Giacomo (1979): «Dal «settore» industriale al «distretto» industriale. Alcune considerazioni sull'unità di indagine dell'economia industriale», in *L'Industria. Rivista di economia e politica industriale*, 1, 7-21.
- Bull, Stephen (2010): *Trench. A History of Trench Warfare on the Western Front*, Osprey Publishing Ltd., Oxford, UK.
- Catalán, Jordi (1990): «Capitales modestos y dinamismo industrial: Orígenes del sistema de fábrica en los valles guipuzcoanos, 1841–1918» in *Pautas regionales de la industrialización española (siglos XIX y XX)*, Ariel, Barcelona.
- Ezell, Edward C. (1983): *Handguns of the World*, Stackpole Books, Inc., Harrisburg, PA (USA).
- Gangarosa, Gene (2001): *Spanish Handguns, The History of Spanish Pistols & Revólvers*, Stoeger Publications, Accokeek, MD (USA).
- Goñi, Igor (2007): «Evolución de la industria armera vasca (1876–1969): un enfoque a largo plazo» in *Del metal al motor. Innovación y atraso en la historia de la industria metal-mecánica española*, Fundación BBVA, Barcelona.
- Goñi, Igor (2008): «Imitación, innovación y apoyo institucional. Estrategias de penetración en los mercados internacionales de las empresas armeras vascas durante el Siglo XX.», *Revista de la Historia de la Economía y de la Empresa*, 2, 207–233.
- Goñi, Igor (2009): «De Esperanza y Unceta a ASTRA-Unceta y Cía., S.A., una empresa armera ante el mercado internacional (1908–1970).», *Revista de historia industrial*, 40, 51–93.
- Goñi, Igor (2010): «Eibar y la industria armera: evidencias de un distrito industrial», *Investigaciones de Historia Económica-Economic History Research*, 16, 101-134.
- Goñi, Igor (2018): «Brands in the Basque gun making industry: The case of ASTRA-Unceta y Cía.», *Business History*, 60, 8, 1196-1226.
- Hogg, Ian V. eta Weeks, John (1978): *Pistols of the World*, Arms and Armour Press, London.
- Paul, J. I. (1978): *Evolución de la industria armera de Eibar*, Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, Donostia.
- Rojo, Juan Carlos (2009): «Las consecuencias económicas de la guerra: la empresa vasca durante la primera guerra mundial», in *Revista de la Historia de la Economía y de la Empresa*, 3, 391-414.
- Roldán, Santiago; García Delgado, José Luis, eta Muñoz, Juan (1973): *La consolidación del capitalismo en España, 1914-1920*, Confederación Española de Cajas de Ahorro, Madrid.
- Strachan, Hew (2004): *La Primera Guerra Mundial*, Crítica, Barcelona.
- Tafunell, Xavier eta Carreras, Albert (2004): *Historia Económica de la España Contemporánea*, Crítica, Barcelona.